



HEZKUNTZA SISTEMA NAZIONALA

egunez egun, herriz herri, urratsez urrats

Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) herri ekimena duela 6 urte sortu zen Hezkuntza Sistema Nazionalaren (HSN) aldeko mugimendua loratzeko bokazioz. Urte hauetan zehar ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak HSNren aldeko lanean antolatu eta bide horretan kokatzen ditugun aldarrikapenen baitan dinamika ezberdinak burutu ditugu. Herri ekimenak pasa den ikasturtean III. Nazio Mintegiak egin eta hausnarketa luze baten ondorioz, HSNren aldeko aldarrikapena lehen lerrora eramatearen beharra adostu genuen, gure lan guztia helburu horretan jarritz.

ZER EGINGO DUGU?

- Euskal Unibertsoa '08, Apirilaren 24an Gasteizko Campusean ospatu dena.
- Martxoaren 31tik Maiatzaren 30era EHBEk inoiz egin duen dinamikarik handiena jarri du martxan. Astero eskualde batean dinamikak indarra hartuko du eta ekimen ugari prestatu ditugu. HSNren aldarrikapena herriz herri eta ikastetxez ikastetxe barreiatzeko dinamika antolatu dugu. Horretarako Unitate Didaktiko bat, erakusketa bat eta beste hainbat ekimen antolatu ditugu. Dinamikak irauten duen bitartean, "Pitz" deituriko HSNren aldeko ARKATZA ibiliko da herriz herri. Zentzu horretan, arkatza HSNren ikur bilakatu nahi dugu.

Maiatzaren 30ean Iruñean manifestazio nazionala burutuko da. Bertan PARTE HARTZERA ANIMATZEN ZAITUZTEGU!

ZER LORTU NAHI DUGU?

- Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarrikapena lehen lerrora eramatea.
- Hezkuntza esparruan dauden egitasmo eta ekimen ezberdinak HSNa antolatzeko eskubidearen logikan kokatu.
- Esparru ezberdinetatik ezartzen diren inposaketak HSN eskuratzeko oztopo direla irudikatu.
- HSNren aldeko eta hezkuntza eskubideen aldeko mugimendu sendoa artikulatzen jarraitzeko mugarri garrantzitsua ezarri.
- HSNaren aldeko aldarrikapena herriratzea izango dugu xede, herritarren parte-hartze nahiz inplikazioa bultzatuz.

Informazio gehiago >>>>> <http://www.euskaleskola.org/>

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org